



Gabonen  
ostean  
balorazioen  
garaia iritsi da

/4-5, 8

Eguberritan hainbat eta hainbat ekintza antolatzen dira jai giroan. Hauek pasa ostean, balorazioak egiteko garaia iritsi da. Udalekoa erdiko orritan aurkituko duzue, eta Multimusikalekoak berri, azken orrian. •



Ostiralean, jende ugari bildu zen herrian eskaini ziren bi kontzertuetan, *Underneed* taldea Kultur etxean izan genuen eta *Morau ta Agotak*, aldiz, Jalgi Kafe Antzokian.



**Rocka eta burrunba Lasarte-Orian** Ostirala arratsaldean 20:00ak aldera Kultur Etxe ingurura hurbiltzen zen orok burrunba ezezaguna entzuten zuen. Ez larritu, musika zen eta. Kultur etxeko zirrikitu guztietatik sortzen zen musika, *Underneed* taldearen musika zen, hain zuzen ere. Xpression!!! eta Gazteria eta Festak sailak sinatutako akordioaren barruan kokatutako kontzertuek hamabost egunero du leku Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegian eta, oraingoan, rocka entzuteko aukera egon zen. Lasarteoriar multzoa bildu zen kafetegian *Patxus* eta Fer herritarrek, Eider abeslariak eta Danik osatzen duten taldearen saioaz gozatzeko. Jalgi Kafe Antzokian ere giro ona sortu zen *Morau ta Agotak* taldearen kontzertuan. Taldeak ez zituzten bere diskoetako lanak bakarrik eskaini, beste abeslarien bertsoak ere jo zituzten Jalgi betetzen zuen jendearen bozkarioarako. Kontzertu bukatu eta entzuleek taldearen doinu rockero eta hitz salatzaileak, gaur egungo gizartea salatzen dutenak, entzuteko gozoz jarraitzen zutela adierazi zuten txalo eta oihu artean. •



Elikagaien karabanarekin batera, gure solidaritatea eta dirua ere bidali nahi dute, horretarako Euskadiko Kutxan 3035 0080 94 0800054177 kontu korrontea ireki dute.

## Sahararen aldeko elikagai bilketari ekingo diote gaur bertan

Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Aldeko Elkarteko kideek Sahararen Aldeko Euskal Karabanarako elikagai bilketari ekingo dio gaur eta hilak 23an amaituko dute. Karabana honek elikagaiak errefuxatuen kanpamendueta-  
ra eraman nahi ditu: arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak. Ekimen honetan parte hartu nahi baduzue herriko eta Añorgako ikastetxeetan, supermerkatuetan eta Emakumeen Zentro Zibikoan edukiontzia

aurkituko dituzue.

Elkarteko kideek gogoratu nahi digute herrialde honen egoera hobetze ezean oker-  
ra doala. "Orain bi hilabete garrantzi handiko euriteak jasan zituzten, ondorioz "etxeak", ikastetxeak eta osasunerako eraikinak behera etori ziren". Honi gehitu behar zaio saharauriarrek jasaten ari diren anemia zein desnutrizioa, haurrek eta emakumeek bereziki. "Elikagaien batera gure solidaritatea eraman nahi diegu." •

## KIROLA ■ 2

**LOKEko bost judoek Etorkizuneko kirolari saria jaso dute**

## KULTURA ■ 3

**Pablo Barrio idazle lasarteoriarrak Serantes Antzerki Saria irabazi du**



## GURUTZETA SAGARDOTEGIA

**SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI**

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURELEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)  
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

Zatoz  
txotx egitera!

# Etorkizuneko kirolariak Lasarte-Orian

■ Abenduaren 20ean Kursaal aretoan Amaia Curiel, Leire Zubizarreta, Arrate Oiartzun, Asier Sagasti eta Iñaki Elizalde judokek jaso zuten saria

**E**torkizun handiko kirolaritzat jotzen dira lehiaketetan goi-maila lortu ez arren, hori lortzeko gaitasuna erakusten duten kirolariak. Arau orokor gisa, denboraldi bakoitzean kadete, jubenil eta junior kategorietan aritzen diren kirolariak dira. Kirolari hauen esfortzua eta lana saritzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak *Etorkizuneko kirolaria* saria sortu zuen. Abenduaren 20an, Kursaal aretoan Aldundiak Gipuzkoako Kirolak Sariak 2008 banatu zituen eta bertan egon ziren LOKEko bost judoka.

Urtero legez, Gipuzkoako Foru Aldundiak urteko kirolariak saritzen ditu Donostiako Kursaal aretoan burutzen den Kirol Sariak ekitaldian.

Aurtengo edizioa, abenduaren 20an izan zen eta bertan bost lasarteoriarrek jaso zuten *Etorkizuneko kirolaria* saria: Asier Sagasti, Leire Zubizarreta, Amaia Curiel, Iñaki Elizalde eta Arrate Oiartzun.

## Etorkizuneko kirolaria

Bost judoka hauek sanbo borrokan eta judoan lortutako emaitza ezin hobengatik lortu dute saria.



Asier Sagasti, Leire Zubizarreta, Amaia Curiel, Iñaki Elizalde eta, argazkia ez dagoen, Arrate Oiartzun izan dira sarituak.

Foru Aldundiko hizpide teknikoek diotenez, *Etorkizuneko kirolari* izateko taldekako kirolean nahikoa duzu Estatuko selekzioan jokatzeko deitua izatearekin nahiko duzu; bakarkako kirolean, berriz, bi aukera daude, bata selekzioarekin lehiatu izana eta, bestea, Estatuko txapelkun edo txapelkun ordea izatea.

*Etorkizuneko kirolaria* sariari esker, LOKEko judokek

kirolean jarraitzeko diru laguntza jasoko dute eta Foru Aldundiko *EUTSI* programako zerbitzuez baliatu ahalko dira, hala nola, kirol errendimendurako babes eta orientazio psikologikoko zerbitzua edo zerbitzu biomedikoa eta nutrizionala.

## Ekitaldia

Baina Lasarte-Oriako gaztetxo hauek ez ziren saria eskuratu

zuten bakarrak izan. Kursaal aretoan kirol desberdinetako 80 kirolari baino gehiago bildu baitziren.

*Etorkizuneko kirolaria* sariaz gain, besteak beste, Leire Olaberria txirindulariari *Gipuzkoa saria* eman zioten Pekinen brontzeko domina eskuratzeagatik eta Oier Aizpuru piraguista ere saritua izan zen bere jardueraren profesionala dela eta. •

## Futbol partida atzeratuak

Egun hauetako eguraldiaren ondorioz, Michelingo futbol zelaia larunbata goizean izoztua zegoen. Honela goiz horretan jokatu beharreko partidak bertan behera uztea erabaki zen.

Jokatu ez ziren partidak Infantil txikiko kopako Ostadar-Lagun Onak eta Infantilen Ohorezko kopako Ostadar-Lengokoak izan ziren.

Baina Ostadarreko taldeak ez dira partida jokatu gabe geratu ziren bakarrak, Texas Lasartearreko II. erregionaleko mutilek Eibaren jokatu behar zuten partida ere bertan behera geratu baitziren.

Eta hauetaz gain, Gipuzkoako hainbat herrietan ere elurrak eta izotzak errepide edo futbol zelaietan sortutako arazoengatik partidak atzeratuak izango dira.

Beraz, partida hauek aurrerago jokatuko dira taldeak eta Gipuzkoako Futbol Federakundeak egun proposa aurkitu ostean.

## Kiroleko oharrak

### LOKEko afariak

LOKEko loteria-billeteen zenbaki irabazleak ondorengoak izan dira: 2365 zenbakiak Aginaga Sagardotegian lau afari irabazi ditu eta 8400 zenbakiak, berriz, Txintxardin Belta jatetxean lau lagunentzako afariak. Irabazleak 656715700 (Morales) zenbakira deitu beharko dute dagozkien akreditazioak jasotzeko.

### Udalaren kobratzea


Udalak barkamena eskatu nahi die abenduaren 31n egin zen kobratze baten ondorioz kalteak izan diren udal kiroldegiko erabiltzaileei. Akatsa lehen bai lehen zuzenduko da kalteetuei kobratutako dirua bueltatuz.

### Ostadarreko irabazleak

Urtero bezala, Ostadar Kirol Fundazioak bazkideen artean otar bat zozketatu du eta aur-

tengo irabazlea Maddi Iparragire izan da.

Bestetik, Ostadarrek nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburu pasa zozketatu du eta zenbaki irabazlea "el niño" loteriako azken lau zenbakiekin bat etorri dena izan da: 8920. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegotik pasa edo 943360433 telefonora deitu beharko du.



## Kirol emaitzak

### Futbola


Ostadar- Gure Txokoa (II. Erregionala, igoera fasea) . 1-0  
Beti Ona- Ostadar (I. Jubenila, igoera fasea) . 0-2  
Texas Lasartearra.- Amaroiz (I. Jubenila, kopa) . . . . . 2-2

### Areto-Futbola

Lakunza Garraioak- Aldaz H.K. (Euskal Liga) . . . . . 2-1

### Herriko txapelketa

ISU Leihoak- Jordi . . . . . 10-0  
Siglo XX - Ilargi . . . . . 1-7  
IOB H.K.- Ainhoa . . . . . 4-5  
Buenetxea - Epel . . . . . 6-4  
Okela - Morrison . . . . . 4-2  
Tragoxka - Izkiña . . . . . 1-4  
Mayi - Lurra XXI . . . . . 2-3  
Izarra - Oria krist. . . . . 3-1  
Katanga - Biyona . . . . . 1-3  
Viña del Mar - Danena . . . . . 3-2  
Oria Txiki - Obelix . . . . . 0-3



## Helduentzako igeriketa

Helduentzako erdi mailako igeriketa ikastaroa antolatu du Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak.

Urtarrilak 19an hasi eta martxoaren 4ra arte eta astean hiru egunetan, astelehen, asteazken eta ostiraletan burutuko da ikastaroa. Igeriketan trebatu nahi duenarentzako bi ordutegi desberdin daude bata goizean, 7:10etan, eta bestea arratsaldean, 20:30ean.

### Izena ematea

Kiroldegiko bulegoetan egin behar da izena ematea eta epea urtarrilaren 16 ostiralera arte egongo da irekia.

Prezioari dagokionez, kiroldegiko bazkide 55,80 euro ordainduko dituzte eta ez bazkideak, aldiz, 110,40 euro.

Ikastaroari buruzko xehetasun gehiago jakiteko Kiroldegiko bulegoetara hurbildu edo 943 376 182 telefono zenbakira deitu. •

# Pablo Barriok Santurtziko Serantes IX. Antzerki Saria irabazi du

Idazle lasarteoriarrak *Isilka-mihisilka armiarmategian* lanarekin eskuratu du Serantes saria

Sorpresa handiz jaso du Pablo Barriok Serantes IX. Antzerki Saria. *Isilka-mihisilka armiarmategian* euskarazko lana aurkeztu zuen antzerki testuen lehiaketara eta Gabonen aurretik saritu zuten. Ez da jasotzen duen lehen saria: *Ama, hor al zaude?* lanarekin Euskaltzaindia-BBKren Toribio Altzaga saria irabazi zuen 2003an; Nafarroako Antzerki eskola eta Iruñeko Haurrentzako Antzerki Testu Berrien lehiaketan *Herio azeri hori* eta *Abere hatsak eta beste animalia batzuk* lanengatik saritu zuten eta 2007an, berriro ere, Toribio Altzaga Lehiaketa irabazi zuen *Kontra bidean* lanarekin.

*Isilka-mihisilka armiarmategian* antzerki lan hau nahiko berezia dela esan digu Pablok, "bai kontatzen den istorioren aldetik, eta baita erabilitako tratamendu literarioaren aldetik ere". Azken lan honetan hitz-jokoak erabili ditu, lanaren izenburuan islatzen den bezala. Baina, agian lanari izenburua aldatzen diola esan digu idazleak, gauzak erraztearren, "Armiarmategian". "Oro har, hitz-jokoekin eta hizkuntzarekin erabiltzen dut jolasa, irudi eta

egoera bereziak sortuz. Forma aldetik ere, nahiz eta ezer berririk ez asmatu, egia da elkarrizketak aurkezteko modua ez dela ohikoena, eta beste tempo bat, arnas berezi bat, ematen dio horrek".

## Alpontxo eta armiarmak

Lasarteoriarrak *Isilka-mihisilka armiarmategian* lanaren nondik norakoak kontatu dizkigu.

Hiru pertsonaien arteko harremanean oinarritzen da istorioa: Alpontxo, eta bi armiarmak, bata arra eta bestea emea.

Eskola utzi zuenetik lan egindakoa da Alpontxo, lana eta Rosalito emaztea ditu maitasun bakarrak; lana batez ere, Ehundegi batean egindakoa. Enpresaren lekualdatzea dela eta, lanik gabe geratuko da bat-batean, lanik eta Rosalitorik gabe. Urteetan sartuta, zaharkitua ikusten du bere burua eta hor hasiko da bere gainbehera. Ehundegia itxita, armiarmek hartuko dute beraientzat hutsik utzitako pabiloia. Halako batean, nolabaiteko gerra bat sortuko da Alpontxo eta armiarmen artean. Gerra horren jatorria eta kronika kontatzen dira obra honetan.



Pablo Barrioren lan sarituak hitz-jokoan eta hizkuntzaren arte jolasa du bere baitan.

Idazleak lan honen bukaera aurreratu digun arren, ez dizuegu honen berririk emango.

## Saria

Urriaren 31n bukatu zen Testu Dramatikoen *Serantes* Sariaren bederatzigarren ekitaldian lanak aurkezteko epea. 21 lan jaso ditu Seran-

tes Kultur Aretoak eta horietatik bost euskaraz idatziak.

*Serantes* antzerki lehiaketak garai batean bi atal zituen, euskarazkoa eta erdarazkoa, eta atal bakoitzari 2.000 eurotako saria zegokion. Duela hiruzpalau urtetik hona ez dago hizkuntzaren arabera bereizketarik; orain sari nagu-

si bat dago, 2.800 eurotako, eta akzesita, 1.200 eurotako.

Pablok akzesita jaso du, lana aurki rgitaratuko diote eta talderen batek taularatzeko asmoa agertzen badu Santurtziko Serantes Kultur Aretoak eszenara eramateko ekoizpena ahalbidetzeko modua eskainiko dio.

## Ikastaroak

### Emakumeen Zentro Zibikoko ikastaroak martxan

Emakumeen Zentro Zibikoak urtarrilaren 19an hasiko ditu hiruhilabete honetako ikastaroi eta jarduerak.

Jakin arazi digutenez, ikastaroen artean ez dago berrikuntzarik. Baina betikoez gain, hau da, mantentzeko gimnasia, kantua, yoga, taichi, antzerkia edo eskulanez gain, jadanik ohiturazkoa den inauteriko konpartsa prestatzeko txokoa ere egongo dute Zentro Zibikoko emakumeek.

#### Dohainezko jarduerak

Ikastaro guztietan parte hartzeko izen ematea ezin bestekoa da, baina ez horrela matrikula ordaintzea.

Dohainezko ikastaro eta jarduerak ere badaude, frantsesa, irakurtzeko txokoa, bideoforuma edo lehen aipatu ditugun inauterietako konpartsa eta mantentzeko gimnasia, esate baterako.



Eguberrietako jardueretan emakumeek mahai zentroa nola egin ikasi zuten.

#### Izena ematea

Ikastaroetara edo jardueretan parte hartu nahi duten emakumeek Zentro Zibikoan bertan eman behar dute izena. Ordutegia 9:30etatik

13:30etara eta 15:00etatik 20:00etara da.

Azkar ibili beharko zarete, hilaren 15ean, hau da, ostegun honetan izen emateko epea bukatzen baita.

#### Eguberrietan ere jarduerak

Eguberriak ongi hasi ziren Emakumeen Zentro Zibikoan, abenduaren 19an ikastaro bukaera eta urte bukaera ospatzeko merienda antolatu baitzuten.

Honetaz gain, abenduaren 22 eta 30an, mahai zentro eta makillaje ikastaroa izan zituzten.

Lehenengoan, Ormazabal loradendako Ramon eta Kororen argibideak jarraituz mahaia apaintzeko zentroa egin zuten. Makillaje ikastaroan, berriz, Mani's ile-apaindegiko Adela gauerako apain nola jarri erakutsi zuten.

Eta bukatzeko, Erregeen Kabalgata dugu. Urtero legez, Zentroko emakumeek Errege Magoen ibilbidea zuziekien argitu baitzuten.

## GAZTE IKASTAROAK

### Izena emateko epea luzatu da

Gazteria eta Festa sailak jakin arazi du Gazte ikastaroen izena ematea epea aste bete luzatu dela, hau da, 14 urtetik gorako gazteek eta haur tailerretako 6 eta 12 urte arteko gazteek ospatzeko merienda antolatu dutela izena emateko. Aldaketa honen ondorioz, ikastaroen hasiera epea ere atzeratu da, urtarrilaren 12an hasi beharrean 19an hasiko baitira.

#### UR SAREA

### Ur-horniketaren mozketa

Ur sarearen hobekuntza lanak direla eta, urtarrilaren 15etik 16ra doan gauean ur-horniketaren mozketa izango da udalerriaren zonalde baxuan, 23:00etatik 5:00etara. Arranbide, San Frantzisko, Kaxkarro, Sasoeta eta Zabaleta auzoetan ura izango dute.



# Gaboneko txoko jostagarriak Amaraun Ludotekan

- Lasarte-Oriako haur eta gaztetxoek Amaraun Ludotekan ongi pasatzeko aukera izan dute egun berezi hauetan
- Gazte asteari bukaera emateko Bilboko Gabonetako Haur Parkera egin zuten txangoa urtarillaren 3an

TONTXORRI

M bideoiklip baten grabatzea, sukaldaritza, txangoak eta mila ekintza gehiago burutu dituzte Amaraun Ludoteko Gabonetako txoko eta Gazte astean ibili diren haur eta gaztetxoak. Honek guztiak, Gabonak era paregabean igarotzea izan du helburu eta egin dituzte Pili Bormego Trakoneko aisialdi arduradunarekin hitz egin dugu.

Gabonetako Haur Parkeaz gain, Lasarte-Oriako haur eta gaztetxoek Gabonetan ongi pasatzeko aukera desberdinak zituzten. Hauetako bat Amaraun Ludoteko eskaintako Gabonetako txokoak eta Gazte astea ditugu.

"2011 eta 8 urte arteko 30 haur etorri dira egunero Gabonetako txokoetara," azaldu digu aisialdi arduradunak.

Mozorroitzeko kultura izan dute, karroketan kantrazeko, txangoak egiteko... kiroldegira eta Txikiyugua joni dia aurreneko gaiterra, sukaldaritza ere murgitdu direla alpatu digu Pili. "Oleztorenentzat gaitia goxo-goxoak egiten ikasi zuten,"



"Egunero hamaika abentura bizi izan dituzte txikiak. Begira-leak ere harenkin oso gustura egon dira alpatu behar da," aitortu digu Amaraun Ludoteko arduradunak.

### Gazte astea

Baina Pili azaldu digumaren arabera, gaztetxoek ere ongi pasatzeko aukera izan dute Gabonetan irauan dituzten bi aste hauetan.

"1go astean talde txiki batek goizez bildu eta Olenzerori bere etorrerak jaiadrako sorpresa antolatu zituen, rap eta break dantza," esan digu.

Eta bigarren astean, 20 haur bildu ziren filma egiteko asmoz, "baina azkenean filma rap bideoiklipa bihurtu zen," aitortu du aisialdi arduradunak.

### Bilbor txangoa

Hau guztiaz gain, urte bukarea ospatu eta Gazte astari buketar emateko, Tekunen eta udal-rik antolatutako udal-erretan bildu diren berrikuntzak nabarmendu ditugu, gure asmoa berritzen joatea da gure lortutako bilbor txangoa. Bilboko Gabonetako Haur Parkera txangoa egin zuten, "Pili merari pasa zuten bertan," azpimarratu du Pili. •

### Amaraun Ludotekara gonbita

Amaraun Ludotekara gonbita digu ludotekako arduradunak. Orduetako astelehenean ostegunera 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara da.

"Gazte eta gonbita egin ostira, animata daitezela ostriala, arratsaldean txangoa, Gazte klubean ere sorpresa emango dute haurrek, "Talletrak, eskulanak material desberdinekin egiteko aukera, latexa, esate baterako," alpatu du Pili.

### Golazen

Honetaz gain, Lasarte-Oriako gazteek Golazen film musikala ikusteko aukera izango dute, urtarillaren 3in. Ordua eta lekua zehazteko daude, beraz deitu txiki, 2 eta 8 urte artekoak. Amaraun Ludotekara etorri eta oso pasako dute," esan berri.



"Mozorroak, karaoka, txangoak, sukaldaritza... egunero hamaita abentura bizi izan dituzte Gabonetako txokoetako haurrek"



Eguberrietako Haur Parkeak, goko argazkian eta behekoan, Urte Zahar eguneko dantza izan dira, kale herizaileren ekintzekin batera. Udalerriaren biloritzeko hirpide.

# Gabonetako egitarauaren balantze baikorra egin du Udalak

Jon ALTUNA

Gabonetako Udalak antolatutako egitarauaren balantze baikorra egin du Jesus Maria Zabalo. Gazte-ria eta Festa sateko buruzkariak nabarmendu ditugu, gure asmoa berritzen joatea da gure lortutako bilbor txangoa. Bilboko Gabonetako Haur Parkera txangoa egin zuten, "Pili merari pasa zuten bertan," azpimarratu du Pili. •



esortzu ekonomiko azpimarratzen du eta urtarillaren 4ra arte zabaltzeko aukera izango du. "Gazte eta gonbita egin ostira, animata daitezela ostriala, arratsaldean txangoa, Gazte klubean ere sorpresa emango dute haurrek, "Talletrak, eskulanak material desberdinekin egiteko aukera, latexa, esate baterako," alpatu du Pili.

"Zaballos zinegotziak aurtun egin diren aldalaketa eta berrikuntzak nabarmendu ditu"

"Bere ustez merezi izan du Gabonetako Haur Parkea egun gehiagotan jarzteak"

"Espazio erosoagoa" izan du Urte Zahar gaueko festak Kultur Errezean

# Heziketa-ekintzak kalean gaztetxoentzat

■ Gabonetan Udalak Villa Mirentxun eta Andatzan antolatutako jarduerak harrera ona izan dute

■ Graffitiak, Parkour erakustaldia, Break dance, rock kontzertua, ... atara dira kalera

Jon ALTUNA

Harrera ona izan dute gazteekin artean Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Kale Heziketa-ekintzetan antolatutako ekitaldiak, Abenenturen 23an Villa Mirentxun eta 30ean Andatza Plazan hainbat jarduerak burutu ziren Udaleko Gazteria Salarean eta herriko Hip Hop ekarparen laguntzarekin. 10-18 urte arteko herriko eskola-erakundeekin batera, zuten eta emanaldi ezberdinez gozatzeko aukera izan zen aratsaldean haur eta gazteekin. Musikak eta dantza, giro bikaina izan zen aratsaldean, antolatutako adierazi dituzte, kalea gune beziragarri bezala aldarrikatzea eta herriko gazteei denbora libreko eskantze zabaltzea dira.

Kale Heziketa-ekintzetan, herriko gazteekin batera, zuten eta emanaldi ezberdinez gozatzeko aukera izan zen aratsaldean haur eta gazteekin. Musikak eta dantza, giro bikaina izan zen aratsaldean, antolatutako adierazi dituzte, kalea gune beziragarri bezala aldarrikatzea eta herriko gazteei denbora libreko eskantze zabaltzea dira.



Desazer: 92 rock taldeak estreinadi kontzertua eslatu zuen Andatza plazan.

# Xpression!!! kultur "azaleratzaile"

■ Lasarte-Oria, Zarautz, Errenteria eta Irungo Udalek parte hartuko dute zirkuituan ■ Zuzeneko emanaldiak eskainiko dira herri hauetan ■ Sortzaileen lana entsegu lokaletik ateratzea du helburu

JON ALTUNA

Xpression!!! Kultur Elkarteak aurten Gipuzkoako zenbait herritan bertako artista eta musikariek ingo diren emanaldi sortaren berri eman zuen abenduaren 30ean Donostian. Lasarte-Oria, Zarautz, Errenteria eta Irungo Udalek parte hartuko dute zirkuituan eta Udal horietako ordezkariak ere izan ziren Koldo Mitxelena Kultur Etxeko aretoan egin zen aurkezpenean. Horien artean zen Jesús María Zaballos Lasarte-Oriako udal ordezkaria.

Xpression!!! elkarteak Lasarte-Oria, Zarautz, Errenteria eta Irungo Udalarekin elkarlan hitzarmenak sinatu ditu herri horietan kultur ekintzak bultzatzeko eta herri horietako artista ez profesionalizatuari aukerak eskaintzeko. Bertako kultura bultzatzea da helburua eta artista horiei espazioak eta baliabideak eskainiko zaizkie.

Xpression!!! zirkuituko ordezkariak prentsaren aurrean adierazi zuten, Udalentzat erreminta baliotsua izan nahi du elkarteak, udalerriri horietan bertako kultura eta taldeak sustatzeko, "kaleko kultura bereziki" eta helburu horrekin "kostu baxuko" zuzeneko emanaldiak antolatuko dituzte.

Xpression!!!-eko Jokin Telleria eta Manuel Gonzalez izan ziren aurkezpenean, eta Zaballos Lasarte-Oriako zinegotziarekin batera, Jon Burgaña Zarautzko Udaleko ordezkari eta Fernando San Martín Irungo Udaleko ordezkaria. Errenteriakoak ez zuten parte hartzerik izan beste bete behar batzuek zituelako.

Xpression!!!-eko arduradunek, gonbidapena luzatu zieten Udalei "esparru berri honetan parte har dezaten horrela erregularki ekimen



Manuel Gonzalez, Fernando San Martín (Irungo Udala), Jokin Telleria, Jon Burgaña (Zarautzko Udala) eta Jesús María Zaballos aurkezpenean. Arg: Txema Valles.

kulturalak (kontzertuak adibidez) programatzeko aukera izateko", nahiz eta euren ustez normalean era honetako ekimenentzako "aurrekontu laburra" izaten den.

## Zuzeneko musika nagusiki

Aipatutako herrietan burutuko diren ekitaldiek, nagusiki zuzeneko musika izango dute ardatz, baina Xpression!!!-ek adierazi duenez, "helburu nagusia edozein motatako errekurtsorik gabeko artistei laguntzea" izango da, bai musikariei, eta baita aktoreei, margolariei, eskulturgileei,...

Bost urte pasa dira Xpression!!! zirkuitua martxan jarri zenetik eta euren helburua

herri gehiago biltzea da, Udal ezberdinen artean sare bat osatzu, "ahalik eta handiena". Esan bezala momentuz Zarautz, Lasarte-Oria, Errenteria eta Irunek parte hartzen dute zirkuituan. Xpression!!!-eko ordezkariak aurreratu zuten beste batzuk ere interesa adierazi dute besteak beste Deba, Tolosa, Zumaia eta Zaldibiak.

## 5 urteko esperientzia

Duela 5 urte baino gehiago sortu zuten Xpression!!! musika zuzeneko egiteko espazio egokirik ez zegoela sumatu zuten musikari talde batek.

Irabazi asmorik gabeko Kultur Elkarteak da, eta sortuzenean Gipuzkoan 25 areto

eta 200 musikariek parte hartu zuten.

Xpression!!!-en helburu nagusia "urperatutako" kultura, kultur "azaleratzaile" batean bilakatzea da. Hau da, profesionalki aritzen ez diren musikariek entsegu lokaletan egiten dutena erakutsi ahal izateko aukera eskaintzea. Beti ere "etxeko" artistei laguntzea da oinarria eta jendeari musika edota beste iharduerak hurbiltzea ere bai.

Horrela, batetik musikariek espazioak eskainiko zaizkie eta bestetik musika jendeari hurbildu. Horregatik, hartu emanetan jarri dira batetik tabernariekin eta bestetik erakunde publikoekin. Emanaldiak jendea dabilen tokietan,

taberna eta areto publikoetan antolatuko dira.

Filosofia bereziak darabil Xpression!!!: bilatu gabe, bat-batean topatzen den kultura eragitean datza: "ekimen fabrika bat dela esan genezake, beti artistak jendearengana hurbiltzen saiatuz, normalki jada jendea egoten den espazioak erabiliz". Horregatik, ekitaldietako sarrera doakoa izaten da beti zirkuituan.

Elkarlana da ekimenaren oinarri. Udalek, aukeratzeko dute zein talde eta noiz jarri, Udalek ordaintzen diote taldeari eta Xpression!!! arduratzen da beste guztiaz: kudeaketa, publizitatea, koordinazioa, etab...

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Asteazkena, 14

**Hitzaldia**

GIZA HARREMANEI BEGIRADA POSITIBOA izeneko hitzaldia KIUBek antolatuta Psikologia eta Osasuna zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:30ean.

GAZTELANIAZ.

Ostirala, 16

**Jam sesioa**

IBAN NIKOLAI izango da gonbidatu berezia. Ibanek didgeridoo musika tresnan aditua da. Musika etnikoa eta tribala. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.



Igandea, 18

**Zinea**

PEREZ 2: GURE SAGUTXO HORI haurrentzako filma. Sarrera 3, 15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

EUSKARAZ



*Gorputzeko umoreak ikusgai*

ILITZ OLANO MARTIN lasarteoriarraren "Gorputzeko umoreak" izenburuko margoen erakusketa dago ikusgai Jalgi kafe-antzokian urtarrila osoan zehar. Kolore eta forma ezberdineko 10 margoek osatzen dute erakusketa.

HILABETE OSOAN ZEHAR  
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Osteguna, 22

**Zinea**

LA ESCAFANDRA Y LA MARIPOSA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:30etan, GAZTELANIAZ



**Oharrak**

**Nazimenduko lagunak eskerrak**

Nazimendua lagunak taldeak eskerrak eman nahi dute abenduaren 24ean egindako eskean dirua emandako laguntzietan. Mila esker! Dirua Yankee II Nikaraguako herrixkara bideratuko da Alejandro Romoren bitartez.

**Bai Euskal Herriaren zozketa**

Bai Euskal Herriak antolatutako zozketaren zerbaki irabazlea 11.352 da eta Arrasaten saldua izan zen.

**Erketzeko inauterietako kompartsa**

Orain 2 urte ekialdetik etorritako arabiarrekin eta beraien dantzekin txundituta geratu bazinen eta iaz, Rafaella Carrarekin gorputzeko hezur guztiak astindu bazenituen... ez pentsatu gehiago eta animatu zaitez gure karrozan parte hartze-

ra, ondo pasako duzu eta nahi adina dantzatu.

Izena emateko Erketzeko lokalera joan Zumaburu ikastolan. Entsaioak asteartetan izango dira 21:00etatik 22:00etara urtarrileko 13, 20, 27an eta otsailko 3, 10 eta 17an.

**Gazte Bilguneko saskiaren jabea azaldu da**

Gabonetako saskiaren zozketa egin zuen Gazte Bilgunek urtarrilaren 5ean eta antolatzaileek jakinarazi nahi dute saskiaren jabea azaldu dela eta dagoeneko saskia etxean duela. On dagiela!

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behea

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Eskutitzak**

**Amiantoaren biktimak**

Jose Luis Aramburu amiantoaren gaixoa mesotelioma batekin edo pleurako minbiziarekin, FAGOR Luzuriaga enpresan langile bizi oso bat eta gero, zein arrigile nekazaria eta ASVIAMIEko aurpegi eza-gunetako bat, abenduaren 26ko goizaldera hil zen. Noiz arte heriotz isil hauek? Amiantoaren ondorioengatik izandako heriotzak, lan-istripuak baino gehiago direnak, isiltasun osoan gertatzen dira. Lanean eta gizartearen sustantzi kantzerigenoaren aurrean, prebentziorako ahaleginak bikoizteko eta biktimak gogoratzeko garaia iritsi da. Jose Luis, zure ausardia eta kemena nire oroimenean jasoa geratuko da. Goian bego.

ERREDAKZIOAN ITZULIA

**Jesus Uzkudun Euskadiko CCOOko Lan Osasuneko arduraduna**

bat (beste bat akats larriak izatea da). Baina batez ere ohartarazi genuen kolektore hori ez zela Gabon sari gisa ulertu behar, Gipuzkoako saneamenduari aspaldiegitik duten zorra kitatzeko bidean urrats txiki gisa baizik. Urtebete geroago, Gobernuak hartu berri duen erabakiaren aurrean, ideia bera berretsi beharrean gaude.

Zor horren adibide garbia da Oriako saneamenduari egoera tamalgarria. Alegiatik behera (Tolosa, Ibarra, Villabona, Andoain...) ur zikin guztiak ibaira botatzen dituzte, inolako tratamendurik gabe. Aduan araztegi bat aurrekusi dute, baina erakitzen ere ez dira hasi.

Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ur zikinak, berriz, kolektore batean bildu eta, lehendabizi, Hernanira eta, gero, Loiolako araztegi bidaltzeko asmoa dute. Kolektore hori da Gobernuak onartu berri duena. Usurbil, Zubietan, Donostia, Lasarte-Oria eta Hernani (Galarreta, Sorgintxulo, Antziola) ukituko ditu. Eraikitzeke epea lau urtekoa da, laburragoa izango dela espero duten arren. Nolanahi ere, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ur zikinak, europar araudiaren arabera beranduenez 2001n tratatu behar zituztenak, 2012tik edo 2013tik aurrera tratatzeko moduan egongo dira. Hori atzerapen berririk ezean eta kasurik onenean. Eta "kasurik onenean" hori nabarmendu nahi dugu, Loiolako araztegia ez baitabil behar bezala. Izan ere, inauguratu zutenetik hiru urte pasatu diren arren, akatsak direla-eta, oraindik urrutiko dago Urumea bailara ur zikin guztiak tratatzetik.

Dena dela, kolektorea -oraingoan bai- erakitzen hasiko direla ematen duela, poztu beharko gara. Poztu gaitezenean, ba, Oriako saneatzeko gero eta gutxiago falta omen da-eta.

**Eguzki**

**Gero eta gutxiago falta da!**

**Oriako saneamenduz**

Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ur zikinak Loiolako araztegi eramango dituen kolektorea eraikitzeke 27 milioi euroko gastua onartu berri du Ministro Kontseiluak. Gogora dezagun ur zikin horiek, gaur egun, Oriara doazela zuzenez, inolako tratamendurik gabe.

Orain dela urtebete justu, zehatz-mehatz, abenduaren 22an, Ingurugiro ministro Cristina Narbonak Gipuzkoako bisitatu zuen, Olentzero balitz bezala. Zarauzko itsas pasealeku berria inauguratu eta, bide batez, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo kolektorea eraikitzen 2008an hasiko zirela iragarri zuen. Orduan, epeak beteko ote zituzten duda egiten genuela adierazi genuen guk ohar baten bidez. Izan ere, Gipuzkoako ur zikin saneamendu planek eperik ez betetzea dute ezaugarri nagusietako



# Jai giroan burutu zen Multimuskala

Z einen azkar igaro zen 27-28ko asteburua. Karpa montatu genuenerako desmuntatu eta jasotze lanetan genbiltzaneko sentipena dut. Izan ere, herriko hainbat gaztek Okendo izan genuen bizileku asteburu osoan zehar. Hotzen gaitetik, sator atomikoek beste behin ere inork gutxi esperoko lukeen duintasunez ateratzen dugu aurrera eronka potolo hau, Lasarten urte askotan izan den erronkarik potoloena dudarik gabe. Autogestio osoz eta oso jende gutxiren laguntzari esker, ia 9000 euroko gastuari aurre egin diogu. Herriak dituen gabeziei aurre egin eta Okendo eta herria barrena dauden tabernetan, kultura herrikoiez osatutako egitaraua anitz eta txukun bat eskaini ahal izan dugu, era oso duin batean.

Zerotik abiatu behar izan genuen. Eta muga guztiak gainditu ditugu. Larunbat gauetan, egiten zuen hotzaren gaitetik Okendo dantzan ikusteak, herriko tabernariak azken urte hauetan lanik gehien egin duten gaua izan dela esateak, egun osoan zehar Lasartek izan zuen bisitari andana ikusteak, zerbait txukun egin dugulako sentipena utzi digu oraingoan.

## Autogestioa

Baina badira hainbat gaua argitu beharrekoak, gaizki ulerturik ematen da. Jaialdi hau antolatzen duen jendeak ez du inongo diru sarrerarik jasotzen, ez inongo elkarte ere eta instituzio ofizialen partetik, eta ezta nahi ere! Multimuskala, autogestiozko ariketa praktikoa bat da, praktikan Okendo gobernuaste buru osoan zehar herriko gazteena izan da.

Udaletxearen jarrera aipatu beharrekoa da: oraingo honetan jausi dira katamaloak, udaletxeari maskara, aurpegi polita kentzea lortu dugu. Mila adibidez erakutsi digute, praktikan oraingoan ere udaletxearen lana herriko gazteok egin behar izan dugula. Hitz emandakoak betetzeaz ere ez dira arduraturik: igandean Buruntzaldeko pilota txapelketa zegoela eta guk gogorazari behar izan genien komenigarria izango litzatekeela udaletxeak komun publiko batzuk egokitzea, hurrengo egunean umeez era duin batean jokatzeko aukera izan zezaten. Hori betetzeko gai ere ez ziren izan, asteburu osoan zehar jendeak txixa zarratza botatzeko ere lekuak bilatzen jardun behar izan zuen. Benetan diogu, oraingoan argi eta garbi ikusi dugu udaletxe gobernu arduragabe osatutako gobernu bat dela, eta benetan Gazte Saila kudeatzeko ahalmen agerikoagoak ditugula egun antolakuntzan ibiliren gazteok hilean milaka eurotako soldata jasotzen duten burokrata kuadrilak baino. Argi eta garbi. Ezpairik gabe, traba besterik ez dute jarri, beraien papera laguntzea izan beharko lukenean.



Irudian, igandean herriko Makulu Ken taldeak eskainitako kontzertua.

Laguntza eskaini, eskaini digute, baina beren baldintzak betetzeko gero. Noski, hainbeste urtetako borroken ondoren badakigu udaletxe honek laguntza eskeintzeak gaitzak jeistea esan nahi duela. Letra larritz. GAL-TZAK JEISTEA. Baina beno, argi eta garbi dugu udaletxe gobernuak ere denbora laburrean aldaketa sakonak biziko dituela, egun kudeatzen duten burokrata arduragabe hauek etxera bidali eta benetako udaletxe demokratiko bat izango dugula ez denbora luzean. Herriak garbi erakusten baitu bere jardunean herri dinamiko, parte-hartzaile eta kudeaketa garbidun bat nahi duela eta ez egungo kortijo faxista hau. Baina nahikoa da, ez dute segundu bat bera ere gehiago merezi.

## Eskertza

Eskertzen atalera heldu gara; hainbat izan dira (ez gehiegi ere) praktikan bere laguntza eskaini diguten norbanako eta elkarteak. Zorion eta hitz polit asko (gehiegi eta antzuak kasu askotan) entzun behar izan ditugu egun hauetan zehar. Jendeak jabetu beharko luke norbere aurpegia garbitzeko soilik ematen diren zorion horiek barre-gura eta amorruta sortarazten ditugutela, eta guk nahi duguna asanbladetara etorri eta antolakuntzan parte hartzea dela, ez besterik. Baina beno, aurtengoan jende batek behintzat txukun erantzun du, eta ez da gutxi.

Hasteko, jaialdiaren zabalkunde lagundu diguten elkarteak eskertu beharrean gaude, hala nola Gaztesarea, Musikherria, Txintxarri, Gara egunkaria... Iruñatik etorri zen gazte andana seguru zuen laguntzarik gabe ez zela bertaratu. Bestalde, ekonomikoki zein bakoitzak ahal zuena eman lagundu digutenei ere gure eskerrak beroenak: Sorgin jaiak, Etxezarreta, Larrañaga, Okela eta Aduriz harategiak, Astiazaran eta Otegi sagardotegiak, Xirimiri elkarteak, junta, zuek prestatutako babarrun janak 130 lagun urdailak ederki berotu zituen herri bazkarian, eskerrak asko!! Patxi, Txema, Oroz eta Rosa, zuek badakizue zergatik,



Musik-eskolan bateria jotzen ikasteko aukera izan zuten hurbildutakoek.



Berto-rap emanaldian herritarrek hartu zuten partean, irudian Unai Muña.

eskerrik asko. Jokin eta Patxus. Ttakuni, Kikoneta uzteagatik. Gazte bilguneko txetxerriak, larunbatean horren afari goxoa zerbitzatzegatik, zuek zaretze herriko etorkizuna! Aek, Bilgune Feminista, Segi, Bai Euskal Herriari, Ruti distri, zuen materiala erakusgai izateagatik. Dana Ona, Goiegi jate-txeak eta laguntza eman arren eskerrik jaso nahi izan ez duten horiek ere bai. Dakara jate-txea, babarrun janean denentzat ez eta di-da batean 18 lagunentzat lekua egin zenigutelako. Tirikitrauki musika denda. Elme aseguruak. Andoaingo Remi. Billabonako Udala, herrikoak ez eta kanpoko udaletxe batek laguntza gehiago eman digulako. Edorta, Karrantxo,

Manitas, bakoitzak bere esparrutik beti herriaren mesedetan. Musik-eskolan bateria irakasten jardun zenuten Leire, Oihane eta Lierni, zuek bai etorkizuna, zorionak artixak!! Eta nola ez, Multimuskalako espikerra, aurkezlea, Martin. Hi haiz hi putoamua!! Ali Doner Kebapeko jendea, eta orohar jaialdian parte hartu duzun taberna multzoa. Jaialdian parte hartu zenuten musika talde zein artistak, bihotz-bihotzez milesker.

Baina, inoren gaitetik, jaialdian denak emanda, osasuna, lo orduak, dirua eta bizkarreko minak utzita ibili zareten herriko gazte horiei, aurtengo esperientzia brutalak izan da oso aberasgarria, zuek bai txetxerri eta txetxena kuadrila, benetan,

zorionak egin duzun lan guztiagatik. Ziur nonor bidean utzi dugula, baina horrek ere jakin beza gure bihotzetan izango dela, hurrengo urteko antolakuntza lanetan hasten garen artean, behinik behin.

## Alderdi ezkorrak

Hainbat alderdi ezkor ere izan zituen asteburua. Antolakuntzak barkamena eskatu nahi die egun horietan zehar edozein eratako arazoak pairatu behar izan zituzten herritarrei. Kanpotik etorritako elementu desestabilizatzaile batzuek hainbat txikizio eragin zituzten herria zehar, eta ozen adierazi nahi dugu jarrera hauen aurkako jarrera, antolakuntzak eskuetan dituen bitarteko guztiak erabiliko dituzte jende hau zein den jakin eta salatzen. Ez dugu ulertzen jende batek nola erabil dezakeen festa egun bat, herriko gazteon egun handia zentzurik ez duten jarrera hauek agertzeko. Eta espero dugu hurrengo Multimuskalean ez direla bertaratu, bestela erantzuna oso desberdina izango baita.

Bestalde, lotsagarria iruditzen zaigu, Okendo asteburu osoan itxita egongo zela jakin arren, handik kotxeak kentzeko ahalagirik egin ere ez zuten horien jarrera. Herriarentzat lanean nor dagoen argi eta garbi geratu da (benetan eskerrik asko udaletxetik herriarentzat lanean ari zareten horiei). Baina argi eta garbi geratu da era berean bere balizko autoritatea erabiliz herriaren aurka dagoen gutxiengo baten jarrera, eta publikoki adierazi nahi diogu ez gaituela kizilduko, gauza bat udaletxeo langile izatea dela eta bestea herriarentzat herri-tik eta arduraz lan egitea. Gu azken honetan ari gara, zuz ezetz erakutsi zenuten. Ta berrik diotsugu, ez gaituzu kizilduko, popatik!! Uste dugu guzti hau ekiditeko bidea konplizitatean sakontzea dela, udaletxea eta antolakuntzaren artean beste tratua bat egon beharko luke, azken orduan inprobisatzen ibil ez gaitezen. Eta argi izan, askoz okerrago ere ateratzen ahal izan zitekeen. Hor ere herriko gazteok ardurak erakutsi genuen, baten batek sakonki eskertu beharko lukeen ardura. Espero dugu hurrengo edizioan honelakorik ez gertatzea, denon onerako, batez ere herriaren onerako izango baita.

Eta ez dago askoz gehiagorik. Antolakuntzak bere prespektiba baikorrenetan ez ez zuten honelako erantzunik espero. Eskerrik asko parte hartu zenuten herriko gazte guztiak, argi eta garbi geratu da Txorimalo dela kasu honetan herriko gazteon instituzio erreala bakarra, ofiziala izan ez arren. Hurrengo urteko Multimuskala aurtengo baino oraindik hobea izango dela espero dugu. Zorionak Txorimalo, zorionak Lasarteko gazteria eta aurrera beti!!! •

Multimuskala Kultur Elkarteak